



Informazio

Agerkaria **Boletín**

217

2013ko
otsaila
febrero
2013

Informativo



Bizkaia
Jaurerriko
Abokatu
Bazkun
Ohoretsua

Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya

TASA JUDIZIALAK

Konstituzioaren 24. artikulua arabera: "Gizabanako guztiek eskubidea dute, beraiei dagozkien eskubide eta interes legitimoak egikaritzean, epaile eta auzitegien babes eragingarria lortzeko, eta ezin daiteke inoiz ere babesgabeziarik gerta".

2012ko azaroaren 20ko Tasei buruzko Legearen zioen azalpenean lege-gintza helburu moduan ezarri da auzitegieta jotzea arrazionalizatzea eta horiek arintzea; hala ere, arrazionalizazio horrek aipatutako 24. artikulua hori urratzea eragin dezake, auzitegien babes eragingarriko eskubideari eta legearen aurreko berdintasun eskubideari eraso eginez; izan ere, errentarik handienak dituztenei auzitan jarduteko aukerari mesede egiten dio, errentarik handienak ez dituztenen kaltetan. Otsailaren 22ko 3/13 Errege Lege Dekretuan gehitutako salbuespenek ez dute astakeria juridiko hori konpontzen, multzo demografiko zabal batek horretarako ezarritako maila ekonomikoak gainditzeagatik doako laguntza juridikorako eskubidea izan ez arren baliabide ekonomiko mugatuak baititu, emaitza ezezaguneko prozedura bat hasteko baliabide urriak. Prozedura horren aurrean aurretik tasa batzuk ordaindu beharko litzuzke eta horrekin batera funts batzuk hornitu beharko litzuzke abokatuarentzat eta prokuradorearentzat, adituen minutak, etab.

Baina tasen inguruko eduki antisozial eta bidegabeaz gain, horien inguruan legeak ematen dira betiko baldartasunarekin eta gaitasun faltarekin. Horren ondorioz, emaitza demagogiko eta kaskarrak lortzen dira, hala nola: errege familiako kideren batek etxeko indarkeria jasan-go balu edo banku bateko lehendakariak lan-istripua izango balu eta ohiko eginkizunetarako ezgaituta geratuko balitz –patuak hala nahi ez dezala, horren inguruan demandarik aurkeztuz gero ez lukete tasarik ordaindu beharko.

Egia esan, neurri horien asmoa eta helburua auzitegieta auzi kopurua murriztea izan da, eta era berean, auzipetuen esku uzten da justizia administrazioaren gastuak ordaintzen laguntzeko zama. Eta hori guztia lotsagabekeria handiz, gastu horiek guztiak (eta lege horiek ematen dituztenen diru-sarrerei aurre egiteko aurrekontuen gastuak ere) herritarrek ordainduko ez balituzte bezala zergen bidez biltzen diren estatuko aurrekontu orokorren bidez. Auzitegieta jotzea auziperatuak apetz eta arinkeriaz aritzea balitz bezala. Gertaera traumatikoa ez balitz bezala. Askotan nahaste ekonomikoak eta emozionalak eragiten dizkie haien gatazkak ebazteko prozedura judicial batera jo behar dutenei.

Baina, aitzakia koiunturalak alde batera utzita, erabaki horiek oso solidarioa ez den ideologia kontserbadoreak eragiten ditu. Ideologia horrek ez du inolako gizarte-konpromisorik iraunarazteko segurtasunaren eta klase ekonomiko dirudunenak babestearren gainetik justizia balio eraginkor eta soziala ezartzeko, hain zuzen ere, klase horiek erabakiok hartzen dituztenak babesten dituzte eta.

El artículo 24 de la Constitución establece que "Todas las personas tienen derecho a obtener la tutela efectiva de los jueces y tribunales en el ejercicio de sus derechos e intereses legítimos, sin que, en ningún caso, pueda producirse indefensión".

La exposición de motivos de la Ley de tasas de 20 de Noviembre de 2012 establece como objetivo legislativo la racionalización de recurso a los tribunales y la descongestión de los mismos, racionalización que, sin embargo, puede dar lugar a una vulneración del artículo 24 referido, atentando contra el derecho a una tutela judicial efectiva, al mismo tiempo que contra el derecho a la igualdad ante la Ley, por cuanto que favorece la posibilidad litigante de quienes poseen rentas más altas, en detrimento de aquellos menos favorecidos sin que la excepciones introducidas por el RD Ley 3/13 de 22 de Febrero resuelvan este disparate jurídico dado que hay un amplio espectro demográfico que, sin tener derecho a asistencia jurídica gratuita por superar los umbrales económicos establecidos al efecto, sin embargo, posee unos recursos económicos limitados, escasos e insuficientes para iniciar un procedimiento contencioso de resultado incierto, y que le exige el abono previo de unas tasas a las que habrá de sumar una provisión de fondos para abogado y procurador, amen de minutas de peritos, etc.

Pero es que, además del contenido antisocial e injusto que rodea a las tasas tal como se han impuesto, se legisla sobre ellas con la habitual torpeza y falta de capacidad que concluye con resultados tan populistas, demagógicos y ridículos como el hecho de que si algún miembro de la familia real fuera objeto de violencia doméstica o el Presidente de cualquier Banco sufriera un accidente laboral con resultado de incapacidad para sus ocupaciones habituales-que el destino no lo quiera- cualquier demanda que presentaran al respecto, estaría exenta del abono de tasas.

Lo cierto es que la intención y objetivo de tales medidas ha sido la de disminuir la litigiosidad ante los tribunales al tiempo que se vierte en los justiciables la carga de contribuir a sufragar los gastos de la administración de justicia, y todo ello con inmensa desvergüenza, como si no fuera cierto que todos esos gastos (así como los que generan las partidas presupuestarias para hacer frente a los ingresos de quienes legislan así) ya son financiados por los ciudadanos a través de los presupuestos generales del estado, recaudados mediante tributación de impuestos.

Como si el recurso a los Tribunales fuera un ejercicio caprichoso y frívolo por parte del justiciable. Como si no fuera un hecho relativamente traumático, por si mismo, que en demasiadas ocasiones genera trastornos económicos y emocionales a quienes se ven obligados a acudir a un procedimiento judicial contencioso para dirimir sus conflictos.

Pero lo más cierto es que, al margen de las excusas coyunturales, estas decisiones vienen motivadas por una ideología conservadora, poco solidaria y sin compromiso social alguno que antepone frente a cualquier valor de justicia eficaz y social- la seguridad de perpetuación y un constante apoyo y protección a las clases económicas más favorecidas que, mayoritariamente, dan sustento a quienes las adoptan.



**Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua**
**Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya**

Decano / Dekanoa
Nazario Oleaga Páramo

Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea
Ana Bermejo Arteagabeitia
Beatriz Barquín Torre
Ignacio Alonso de Errasti

Colaboradores / Laguntzaileak
César Gallastegi Aranzabal
Garazi Arraibi Larrea
Jorge Marqueta Andrés
Eduardo Ranedo Fernández
Idoia Manzarraga Zamalloa
Alberto Martínez Ruiz

Fotografía / Argazkigintza
E. Moreno Esquivel

<http://www.icasv-bilbao.com/>
elboletin@icasv-bilbao.com

Depósito Legal / Legezko gordailua
2.069/1987



Disjurex



Su Librería Jurídica

SI ES JURÍDICO, ECONÓMICO, EMPRESA, Y OPOSICIONES, **¡ LO TENEMOS !**

Su mayor librería jurídica en internet



Podrá consultar más de 35.000 obras, por títulos, materias, editoriales, autores y palabras clave.

ÚNICO TELÉFONO para todas las editoriales Jurídicas Españolas. **944 255 220** ó **902 540 992**.

LIBRERÍA PRESENCIAL. Exposición y venta de las últimas novedades y fondo de referencia de las principales Editoriales Jurídicas, Economía y de Empresa.

LIBRERÍA VIRTUAL: www.disjurex.es. Según los datos del Consejo Vasco de La Abogacía, somos la página web más visitada y mejor valorada en el sector Jurídico. **Descuento 5 % en todas las obras.**

INFORMACIÓN BIBLIOGRÁFICA:

Envío periódico de correos electrónicos con la lista de las **NOVEDADES** relacionadas con las áreas de trabajo que nos solicitan. Actualmente enviamos a 103.000 clientes este valioso instrumento de información.

BOLETÍN DE ACTUALIDAD Y CONSEJOS: Realizado por expertos del sector de Consultoría de Despachos Profesionales, enviamos semanalmente un correo electrónico de recopilación de noticias y novedades legislativas, totalmente gratuito.

ASESORAMIENTO EN OBRAS JURÍDICAS: Nosotros no despachamos libros. Desde el año 1987 estamos visitando bufetes e instituciones, por lo que nos resulta muy fácil detectar sus necesidades.

Si desea asesoramiento sobre libros jurídicos, cuente con nosotros, estamos muy cerca de Usted

www.disjurex.es

Descuentos especiales para Estudiantes, Profesores, Práctica Jurídica y Asociación de Jóvenes Abogados

Distribuidor exclusivo de:
Academia Vasca de Derecho y AD Concordiam

Librería Exposición y Venta

A 100m. del Palacio de Justicia Frente al Ilustre Colegio de Abogados de Bizkaia



Alameda Mazarredo, 15 Bajo
48001 - Bilbao - Vizcaya
Teléfono: 902 540 992 – 944 255 220
Fax: 902 540 993 – 944 245 811
E-mail: clientes@disjurex.es
Librería Virtual: www.disjurex.es

Horario comercial en librería de Lunes a Viernes de 9:30 AM a 20:00 PM, ininterrumpidamente.

SÍGUENOS EN:



2013ko otsaila

06

BERRIAK

06



CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL

10

INFORMAZIOA

Konkurtsoen atsekabeak

Tasa hauei Ez

09



16

JARDUNALDIAK

Justiziaren gaur egungo erronkak.
Tasa judicialak.

14



22

BAZKUNEKO LIBURUTEGIA

Jorge
Ibargüengoitia
*La ley de Herodes
y otros cuentos*

26



28



24

LEGGINTZA BERRITASUNAK

26

KULTUR ERANSKINA

29



TASA LEGEAREN ERALDAKETA

Justizia Administrazioiko eta Toxikologia eta Zientzia Forentseen Institutu Nazionalako zenbait tasa arautzen dituen azaroaren 20ko 10/2012 Legea indarrean jarri eta hiru hilabetera, Legea aldatu egin du Justizia Administrazioiko tasen araubidea eta doako laguntza juridikoaren sistema aldatzen dituen otsailaren 22ko 3/2013 Errege Lege-dekretuak. Azken testu hori joan den otsailaren 25ean jarri zen indarrean.

Oraintsu aldarrikatutako lege gutxi izan dira horren polemikoak eta lege gutxiri egin diete kontra horrenbeste jendek. Tasen Legearen aurka agertu dira kolektibo juridiko guztiak, eta Legea onestean hainbat manifestazio eta aldarrikapen egin dira eta iritzi publiko osoak aho batez aurre egin die.

Giro horren emaitza moduan etorri da aldaketa hau. Oraindik ere aldaketa ez da nahikoa herritar guztien babes juridiko eragingarria bermatzeko. Tasa Lege ospe-suaren aldaketarik garrantzitsuenak laburtuko dizkizuegu:

- Tasak ordaintzetik kanpo uzten dira gaitasunari, seme-alabatasunari, ezkontzari eta adingabeei buruzko prozesuak, adostasunez egiten direnak. Auzibidezko prozesuek kasuan kasuko tasa sortuko dute, salbu eta prozesu horietan eskatutako neurriak adingabeei buruzkoak direnean modu eskusiboan.
- Tasak ordaintzetik kanpo uzten dira Kontsumoko Arbitraje Batzordeek emandako laudoen betearazpenak.

- Tasak ordaintzetik kanpo uzten dira konkurtsoaren masaren intereserako eta Merkataritza arloko epaileak aurretik baimena emanda, konkurtsoko administratzaileek egikaritzen dituzten akzioak.

- Tasak ordaintzetik kanpo uzten dira ondareen banatze judizialerako prozedurak, adostasunez egiten direnak.

Aurkaratzea dagoenean edo eztabaida dagoenean ondasunak sarzteari edo kanpoan uzteari buruz, tasa ordainduko da ahozko epaiketarengatik eta eztabaidatzen den zenbatekoarengatik edo oposizio-gilearen kargura dagoen banaketa-koadernoan aurkaratzetik eratorritako zenbatekoarengatik, eta biek aurka egiten badute, bakoitzaren kargura izango da kasuan kasuko zenbatekoarengatik.

- Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, tasaren zenbatekoaren %60ko salbuespena sortzen da estatutu-eskubideen defentsan jarduten duten funtzionarioentzat.
- Administrazioarekiko auzien arloan muga bat ezarri da zehapen-ebazpenak aurkaratzeko prozesuetan ordaindu beharreko tasaren zenbatekoari dagokionez. Zenbateko horrek inola ere ezin du izan ezarritako zehapen ekonomikoaren zenbatekoa baino %50 handiagoa.
- Tasaren kuota aldakorra modu esanguratsuan aldatu da deklarazio prozeduretan. Modu horretan, tasa ordaindu behar duen

subjektu pasiboa pertsona fisikoa denean, kuota aldakorra izango da prozeduraren zenbatekoaren ehuneko 0,10, gehiengo muga 2.000 € izanda.

- Tasa ordaintzearen ziurtagiri ofiziala aurkezteko beharra ezarri da, behar den moduan balioztatuta, kasuan kasuko prozesuko egintzak tasa ordaintzea berarekin badakar.

Idazkari judizialek inguruabar hori egiaztatu beharko dute, eta ordainketa egiaztatu ez bada, alderdiari eskatuko dio 10 eguneko epean akatsa ongitzeko.

Akatsa ongitzen ez den bitartean, idazkia ez da izapidetuko, eta ordainketa egiaztatzen ez bada, kasuan kasuko izapide prozesala amaitutzat joko da.

- Tasaren zenbatekoaren ehuneko 60 itzultzea ezarri da amore ematen denean edo auzia amaitzen duen akordioa lortzen denean. Itzultze hori aplikatu ahal izango da baita ere administrazio demandatuak administrazio-bidean osorik aitortzen ditunean demandatzailearen uziak.
- Kostuetara kondenatzetik kanpo uzten dira ohiko etxebizitza eskuratzeko eraturako hipotekak gauzatzeko prozesuetan ordaintzen diren tasa judizialak.

Errege dekretuak Doako Justiziar buruzko Legea ere aldatu du. Aldaketak oso garrantzitsuak dira. Hori dela eta, aldizkariko hurrengo zenbakian berri zehatzagoak emango dizkizuegu.

GOBERNUAK INDARREKO BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN BI ARTIKULU INDARGABETU DITU IZAPIDETZEN ARI DEN ERALDAKETAREN ARABERA BERRITU DADIN BJKN

Ministroen Kontseiluak, Alberto Ruiz-Gallardón Justizia ministroak proposatuta, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia berritzeko prozesuari buruzko Lege Organikoaren Aurre-

proiektua onetsi du. Hori dela bide, indarreko Botere Judizialaren Lege Organikoaren (BJLO) 112. artikulua osorik eta 114. artikulua modu parzialean indargabetzen dira.

Neurri horren bidez, indarreko legeak epaileen gobernu-orgagoko kideak berritzeko ezartzen duen izapidea geldiarazten da, organoaren hurrengo berritzea, irailaren 24rako aurreikusita

dagoena, joan den abenduaren 21ean Ministroen Kontseiluak onetsitako Botere Judizialaren Lege Organikoaren Aurreproiektuan ezartzen den moduan egin dadin.

Gaur onetsitako aurreproiektua Fiskalen Kontseilura eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira bidaliko da horiek kasuan kasuko txostenak egin ditzaten. Aurreproiektuan 112 eta 114. artikulua indargabetzen dira epaileen gobernu-organoa berri arte. Orduan Botere Judizialaren Lege Organikoaren eraldaketa BJKNri dagokionez indarrean egongo da.

Gobernuak joan den abenduaren 21ean onetsitako eraldaketak BJKNko kide izateko baldintzak aldatzen ditu. Aurrerantzean, jardunean dagoen edozein epaile edo magistratuk eska dezake gobernu-organoan parte hartzea, kideen 25 berme edo elkarte judizial baten bermea badu, eta hautagaien zerrenda osoa (ez 36 orain arte bezala) Gorteetara bidaltzen da Kongresuak eta Senatuak hauta ditzaten ganbera bakoitzari dagokion kideak.

Bi artikuluko horien indarraldia etengo ez balitz, indarrean dagoen legearen arabera, BJKNko lehendakariak Kontseilua berritzeko prozesua 2013ko martxoaren 24an abian jarri beharko luke, arau horretan finkatutakoaren arabera, ez baitago astirik izapidetzen ari den araua ordurako indarrean egoteko.

Ez da kideak hautatzeko sistema berria organoa berri arte baina apur bat lehenengo indarrean jartzen den lehenengo

aldia. Hain zuzen ere, orain indargabetu den 112. artikulua idazketa ekainaren 28ko 2/2001 Lege Organikoaren bidez gehitu zen, kideak hautatzeko sistema aldatzeko. Berehala, Botere Judizialaren Kontseiluko lehendakariak hurrengo egunean instrukzio bat onetsi zuen (ekainaren 30eko BOE), eta horretan elkarte judizialek zenbat hautagai aurkeztu ahal zituzten ezarri zen eta hautagaiak formulatzeko prozesuaren alderdiak zehaztu ziren.



CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL

IMQ Abogados

Tu salud

La salud lo es todo y con IMQ tienes todo para cuidarla

Tú eres nuestra razón de ser. Por eso, tenemos para ti un seguro médico con todo lo que necesitas:

- La red sanitaria más extensa y la tecnología de vanguardia, sin esperas
- Completa cobertura sanitaria
- Seguro de accidentes para el titular de la póliza desde sólo 5,13 €/mes*
- Descuentos: 4% por pago anual y 5% para 5 o más beneficiarios
- Importantes ventajas fiscales

Exclusivo abogados desde 45,04 €/persona/mes

IMQ
Tu seguro médico

902 311 902 agencia@imq.es www.imq.es

* Es necesaria la contratación del seguro de accidentes para el titular de la póliza.

Oferta exclusiva para miembros de los Colegios de Abogados del País Vasco, cónyuges e hijos, menores de 65 años. Ver condiciones generales de las pólizas. Precios 2013. R.P.S.: 143/12

ABOKATUTZAREN MUTUALITATEAK ERRENTAGARRITASUN AURREIKUSPENAK LORTU DITU 2012KO EKITALDIA IXTEAN

Mutualistarentzako Plan Unibertsalaren errentagarritasuna %5,15 izan zen. 2013rako, inbertsioen errentagarritasun garbiaren ratioa %5 (kasurik kontserbadoreenean) eta %5,57 (arrazoizko agertokian) bitartekoa izan daiteke.

2012. urtean tentsio ekonomiko handiak egon dira nazioan eta Europan, baina ekitaldiaren itxiera ekonomikoan, Mutualitateak lortutako emaitzetan ekitaldirako ezarritako helburuak erdietsi dira.

Inbertsioen errentagarritasun garbia %5,72 izan zen inbertitutako bitarteko fondoan gain. Horri esker, Plan Unibertsaleko mutualistei %5,15 ezarri aplikatu ahal zaie, hau da, itxitako aldi ekonomikoan kontura emandako %4,5 baino %0,65 gehiago.

Emaitza hori Gobernu Batzordearen kudeaketa zaindu eta hurbilaren isla da. Kudeaketa hori inbertsio departamentuek egin dute irizpide kontserbadoreekin, ezarritako helburuak mugatu ditzaketen merkatuen arriskuak minimizatzeke.

INBERTSIOEN EGITURA

Mutualitateak kudeatzen dituen balibideen %95 baino gehiago egonkortasun handiko aktiboetan jarrita dau-

de, eta horien kontabilitate balioa 3.807 milioi euro da. 2011. urtearekin alderatuta, 362 milioiko hazkundera gertatu da.

Modu horretan, 2012ko ekitaldiaren itxieran, inbertsioen egiturak emaitza hau erakusten zuen: %82,33 errenta finkoan inbertituta zegoen, %12,18 higiezinetan, %4,55 errenta aldakorrean eta %0,95 aktibo monetarioetan.

Errenta finkoan, zorroko kopuru gehiena bonoetan inbertituta dago, eta kalifikazio hau du: "goi-mailako edo BBB inbertsio maila". Urtean egindako ekintza gehienen helburua epe luzerako zorroa eraikitzea izan da, Espainiako Zor Publikoan agerpena handitzearen bidez.

Higiezin zorroari dagokionez, gaur egun, higiezin zorroaren kostu garbia 467 milioi euro da, eta tasazio-balioa 619 milioi.

ERRENTAGARRITASUN HOBEA INFLAZIOAREN AURREAN

2012an, Plan Unibertsalaren errentagarritasuna, %5,15, inflazioarekin alderatuta (%2,9 izan da), aztertuz gero, benetako errentagarritasuna %2,25 dela ikus daiteke, aurreko ekitaldikoaren oso antzekoa. Hala ere, ekitaldiaren itxierarako aurreikusitako

inflazio tasak gora egin du: %2,90 izan da, eta aurreko ekitaldian, %2,40.

Aldi honetan, Plan Unibertsalaren errentagarritasuna %5,58 izan da, eta batez besteko inflazioa, %2,97. Ondorioz, Planaren errentagarr-

tasunak KPI gainditu gu, urtero 2,97 puntu.

Plan Unibertsalak azken 5 urteetan emandako errentagarritasuna merkaturako pentsio planen etekinekin alderatuz gero, argi geratzen da urte hauetan Plan Unibertsalean inbertitu duten mutualistek abantaila handiak izan dituztela.

PENSIO PLANETAN BAINO KUDEAKETA GASTU GUTXIAGO

Pentsio planek kudeatutako ondarean gastuen %2,60ra arte kargatu dezaketela eta Plan Unibertsalak komisiok aplikatzen ez dituela eta sistemen arabera kudeaketa-gastuak %0,35 eta %0,50 bitartekoa direla kontuan hartuta, Plan Unibertsalaren aldeko abantaila handia da.

Mutualitateak kudeatutako aurrezki guztiaren gaineko gastuen itxarondako ratioa, ekitaldiaren itxieran, %0,32ra arte jaitsi zen; 2011n, aldiz, %0,35 izan zen.


2013RAKO ERRENTAGARRITASUNA %5 INGURU

Inbertsio departamentuek egindako azterketen arabera, inbertsioen errentagarritasun garbiaren ratioa 2013an %5 (kasurik kontserbadoreenean) eta %5,57 (arrazoizko agertokian) bitartekoa izan daiteke, edo handiagoa, finantza-merkatuen bilakaeraren arabera.

Benetako errentagarritasunaren %90 Plan Unibertsalaren eta Junior Planaren titularrei ematen zaiena da. Hori dela eta, arrazoizkoa dirudi mutualisten helburuko errentagarritasuna %5 izatea.

Beraz, 2013rako helburua urte amaieran %5etik hurbil dauden errentagarritasunak lortu ahal izatea da, hiruhileko bakoitzean %4,5eko konturako errentagarritasuna emanda Plan Unibertsalean.

Composición de la cartera de inversiones de la Mutualidad a 31.12.2012



ABOKATU GAZTEEN TALDEA



2012ko abenduaren 15ean, Abokatu Gazteen Espainiako Konfederazioak (CEAJ) hiru hilerik behin egiten duen batzarra egin zuen Bartzelonan. Batzar horretan nazio osoko abokatu gazteen taldeetako ordezkariak egon ziren, baita Bizkaiko abokatu gazteen taldekoak ere.

Batzarrean jorrazteko gai-zerrendaren barruan CEAJeko 2012ko Giza Eskubideen saria eskuratzeko hautagaien artean bozketa egin behar zen, baita batzorde exekutiboa (lehendakaritza, lehendakariordetza, idazkaritza, diruzaintza eta bost bokal). Batetik, Bizkaiko AGEK 2012ko Giza Eskubideen Sarirako

hautagaia zen "Gorabide" adimen urritasuna duten pertsonen aldeko Bizkaiko Elkartearni zenean, eta azkenean elkarte horrek irabazi zuen saria.

Bestetik, CEAJeko batzorde exekutiboa berritzeko hauteskundeak egin ziren. Gorka Salaberria Bustos gure lankidea 4. bokala izateko hautagaia zen, eta Arabako Vanessa Durán Ramajo lankidea, idazkari kargurako hautagaia. Bertaratuek eta botoa eskuordetu zuten guztiek bozkatu ondoren, bi lankideek hautatuak izateko beharrezko babes lortu zuten eta CEAJeko batzorde exekutibo berrian sartu ziren. Karguak honela geratu ziren:

Lehendakaria

David Díez Revilla (AGE León)

Lehendakariordea

Eva Ojea Pazos (AGE Pontevedra)

Idazkaria

Vanessa Durán Ramajo (AGE Álava-Araba)

Diruzaina

Regina Márquez Gutiérrez (AGE Murcia)

1. bokala

Tiziana Di Ciommo (AGE Barcelona)

2. bokala

Guillermo Padilla Martínez (AGE Granada)

3. bokala

Cristina Llop Velasco (AGE Zaragoza)

4. bokala

Gorka Salaberria Bustos (AGE Bizkaia)

5. bokala

Enrique Torres Gómez (AGE Albacete)

Beraz, legegintzaldiari dagozkion bi urteetan, eginkizun trinkoa daukate aurretik abokatu gazteen interesak defendatu eta ordezkatzeko, are gehiago legegintza-aldaketak aldian-aldian gertatzen diren sasoi honetan.

KAFE JURIDIKOAK

Joan den ostegunean, urtarrilaren 24zn, 19:30ean, Abando hoteleko kafetegian, Bilboko Epaitegietatik hurbil, "KAFE JURIDIKOAK" ekimena jarri zen abian. Bizkaiko Abokatu Gazteen Elkartek sustatu du, zuzenbideko adituekin topaketa egiteko eta eztabaidatzeko espazio hurbila ezartzeko. Topaketa horietan, gaurkotasan juridikoa duten gaiak jorratuko dira, gaur egun, inoiz baino gehiago, kolektiboaren barruan

zein kolektiboaren artean informazioa eta ideiak bateratu behar direla sinetsita.

Lehenengo topaketa honetan, Edmundo Rodríguez Achútegui magistratua egon zen, Demokraziarako Epailen elkarteko Euskadiko koordinatzailea, gai hau hizpide zuela: "El retroceso de nuestro Estado de Derecho y la crisis en la Administración de Justicia. Desafíos para Jueces y Abogados".



Tribulaciones Concursales

HARTZEKODUNAREN LEHEN PAUSOAK

CARLOS AIS, Abogado ICASV



Esan didatenez, arrazoi osoz gainera, atal hau oso gogor hasi zen. Deman-dei buruz hitz egin genuen lehenengo aldia! Eta gure bezeroak oraindik ez dira berreskuratu haien burua konkurtso baten barruan ikusetik... Hobe izango da astiro aurrera egitea eta ordena bati jarraitzea konkurtso batek ukitutakoei interesatzen zaizkien gai praktikoak aurkezterakoan.

Zer esan ahal diot konkurtso baten barruan dagoen bezeroari, zor diotena berreskuratzea ahaztu dezala kenduta? Egia da konkurtsoan kredituak kobratzeko igurikimenak oso negatiboak direla. Praktikan (estatistiketan) ikusten da konkurtsoen %90 baino gehiago likidazioarekin amaitzen direla, eta horrek, ia beti, kreditu arruntei ez diela erantzuten (hain zuzen ere, gure bezeroei aitortzen zaizkien gehienak horrelakoak dira).

Perspektiba etsigarri horren aurrean, bezeroari gogorarazi ahal zaion lehenengo gauza da konkurtsopekoak ordaindu ez dituen fakturen BEZa berreskuratu ahal duela. Konkurtsoaren eragin negatiboa apur bat murrizten laguntzen dion albiste ona!

Mekanismoa erraza da eta hartzekodunak kobratu ez duen BEZa ordaindu behar ez izatea du xede. Horrela, hartzekodunaren erakundea Foru Ogasunera aldatzen da. Kontua faktura berri bat egitea da, faktura zuzentzaile izenekoa, eta horren bidez, hartzekodunak zerga-oinarria murrizten du. Horrela, zordunak fakturatutako zerbitzuaren/obraren zenbatekoa zor izango dio, baina BEZaren ehunekorik gabe. Ehuneko hori zuzenean Foru Ogasunari zordunduko zaio. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 7/1994 Foru Arauaren 80. artikuluan araututakoaren arabera, zerga-oinarria murriztu ahal izango da zergapeko eragiketen hartzaileak ez dituen ordaindu jasanarazitako kuotak, betiere, eragiketa sortu eta gero konkurtsoaren adierazpen-autoa ematen denean.

Faktura zuzentzaile hori beste faktura bat da, eta horretan bezeroak aurreko faktura bat aldatzen du, BEZaren kuota "kenduz". Faktura zuzentzailea egin behar da konkurtso-adierazpena BOEn argitaratu eta hilabeteko epean, eta bidali behar da Foru Ogasunera, konkurtsopeko enpresara eta Konkurtso Administrazioa.

(Mekanismo hau erabiliz iruzurrak saihesteko, 2012. Urtearen amaieran foru dekretu bat egin zen -8/2012, abenduaren 11koa-. Horren arabera, zerga-oinarri hori gorantz aldatu behar da konkurtsoa amaitzen den kasuetan, bai hartzekodun guztiek kobratu dutelako, bai hartzekodunek haien kredituari uko egin diotelako, bai konkurtso-adierazpena epaitegian ezeztatzen delako).

Hori da hartzekodunak egin behar duen lehenengo gauza. Eman behar zaion hurrengo gomendioa da bere kredituaren berri eman behar diola konkurtso-administrazioari, eta konkurtsoan hartzekodun posizioa aitortzeko balio duten datu guztiak adierazi behar dituela. Komeni da kredituaren komunikazio hori faktura zuzentzailea jakinarazten den aldi berean egitea, modu horretan, konkurtso-administrazioaileak kredituen zerrendan gehituko baitu gure bezeroen fakturen zerga-oinarriari dagokion atala eta Foru Ogasunari edo Tributu Agentziari dagozkion kredituetan BEZaren atala gehituko du.

Kredituen komunikazioa ere erraza da. Konkurtso-administrazioaileari (ez epaitegiari), konkurtso-adierazpena BOEn argitaratu eta hilabeteko epean, idatzi bat igorri behar zaio, eta horretan, hartzekodunaren izena, helbidea eta hartzekoduna identifikatzeko beste datu batzuk jaso behar dira, baita bes-telako datu hauek ere: kreditua, horren kontzeptua, zenbatekoa, eskuratze-data eta mugaeguna, ezaugarriak eta lortu nahi den kalifikazioa (beste baterako utziko ditugu kredituen kalifikazioari buruzko oharra). Era berean, egoitza edo helbide elektronikoa adieraziko da, eta tituluaren kopia edo kredituari lotutako dokumentuak gehitu beharko ditugu.

Praktikan, gure foroan behintzat, konkurtso-administrazioaileak oso malguak izaten dira eskakizun formalekin, eta edozein formatu edo komunikazio modu onartzen da, artikuluan ezarritakoa zehatz bete ez arren, batez ere kredituari eman nahi zaion kalifikazioari buruzko xehetasunak.

Kredituen komunikazioari lotuta, zenbait gai sortzen dira.



944 42 53 59

WWW.GPNOR.COM

GPNOR SERVICIOS PERICIALES

Valoraciones de la construcción. Valoración de incendios. Peritaciones de parte. Valoración de Responsabilidad Civil. Valoración de empresas. Accidentes de tráfico. Valoración de bienes muebles e inmuebles. Valoración de daño corporal. Inspección técnicas. Balística.

Zer gertatzen da komunikatzen ez bada? Konkurtso-administratzaileak hartzekodunen zerrendan sartu behar ditu zordunaren liburu eta dokumentuetatik ateratzen diren edo beste edozein arrazoiengatik konkurtsoan agertzen diren zor guztiak. Modu horretan, adibidez, gure bezeroak bere kreditua konkurtsopeko enpresaburuaren kontabilitatean aitortuta badu, ez da inolako arazorik egongo, horrela jaso beharko litzateke eta hartzekodunen zerrendan. Modu berean, hartzekodunen zerrendan nahitaez gehituko dira arbitrajeko laudoa edo ebazpen prozesala dela bide aitortutako kredituak -irraioak izan ez arren-, dokumentuan betearazpen indarrarekin agertzen direnak, administrazio-ziurtagiriaren bidez aitortuak, erregistro publikoan inskribatutako benetako bermearekin aseguruak, eta zordunaren liburu eta agirietatik eratorritako edo beste edozein arrazoiengatik konkurtsoan agertzen diren kredituak.

Zer gertatzen da komunikazioa epez kanpo iristen bada? Hori gertatzen bada, printzipio orokorra da kreditua mendeko moduan aitortuko dutela (hau da, baldintzarik okerrera duena konkurtsoaren barruan), baina lehen esan dugunarekin bat etorritik, hori ez da gertatzen kreditua adierazitako moduren batean agertzen bada. Puntu honetan, kredituen geroko komunikazio izenekoak aipatu behar ditugu (legean sartu zen -96 bis art.- Auzitegi Gorenaren 2011ko maiatzaren 13ko epaiaren ostean): konkurtso-administratzailearen behin-behineko txostena aurkaratzeko epea amaitzen denetik horrek behin betiko testuak aurkezten dituen arte egiten direnak. Horrela komunikatutako kredituak mendeko moduan kalifikatuko dituzte, lehen aipatutako salbuespenekin.

Zer gertatzen da bezeroak kreditu bat jakinarazi bazuen eta modu okerrean kalifikatu bazuen?, edo bestela esanda komunikazioan iragarritako komunikazioa oso loteslea da eta gero ezin da aldatu? Kreditu-komunikazio gehienak hartzekodunek egiten dituzte zuzenean, aurretik inolako aholkularitzarik egin gabe. Horren eraginez, ez dute kalifikazioa zehazten do hori egitean okertu egiten dira. Gaiaren lehengo ikuspegian aldatzeko aukera ukatuko litzateke berezko egintzen doktrina aplikatzeagatik edo kargarik ez egoteagatik konkurtso-administrazioak kreditua hartzekodunak eskatutako moduan jasotzen badu. Hala ere, fase honetan hartzekodunak laguntzarik eta ordezkartzarik gabe jardun dezakeen konkurtso-prozesuaren ezaugarri bereziek zorroztasun hori neurtu behar dute eta kontuan izan behar da malgutasun hori gabe jardungo balitz ezer komunikatzen ez duen baia kreditua adibidez kontabilitateko dokumentazioan agertzeagatik aitortuta duen hartzekodunak "aukera gehiago" izango lukeela. Malgutasun horren defentsan agertu dira epai batzuk. Horiek ere ordena publikoaren esangura ematen diote kredituen sailkapenari, eta horrek eragotzi egingo luke erregru-printzipioa aplikatzea, eta benetako izaerari erreparatu beharko litzaioke (*Alfonso Muñoz Paredes, Ed. ICA Oviedo 2012*).

Komunikazioek eta kreditu-aitorpenek askoz gehiagorako ematen dute, baina mementoz nahikoa izango da eta beste egun baterako utziko ditugu kredituen inguruko beste gai interesgarri batzuk, auzietan eztabaidatzen direnak, pertsona batek edo zenbaiten bermatutako kredituak, likidoak ez diren kredituak, etab.

TASA HAUEK EZ

OHAR JURIDIKO BATZUK LEGELARIEN

EUSKAL KONTSEILUAK ANTOLATUTAKO

JARDUNALDIAREN OSTEAN

SABINO GUTIÉRREZ BAÑARES - Abokatua

2012ko azaroaren 20an aldarrikatutako Tasa Judizialen Legeari buruzko jardunaldiaren bidez ireki zen Legelarien Euskal Kontseiluak justiziaren gaur egungo erronken inguruan antolatutako eztabaiden zikloa. Zenbait gogoeta juridiko eragin dizkigute, eta zorrotasun handiz jokatu gabe, ahal den modurik sistematikoenean ordenatzen ahalegin-duko naiz.

1ª) Lehenengo eta behin ohartu behar da, tributuaren izaera dela-eta tasak zerga-betebeharpekoari mesede egiten dion zerbitzu publiko bat emateari lotuta sortzen diren arren –zioen azalpenean adierazten den moduan-, Justizia Administrazioa ez dela zerbitzu publiko hutsa. Estatuaren botereetako bat da, botere judiziala, XVIII. mendearen erdialdean Montesquieuk formulatutako botere-banaketari buruzko teoria klasikoaren arabera. Botere judizialak botere legegilea eta botere betearazlea kontrolatzeko balio du. Botere banaketa, kontrapisuen eta oreken sistema moduan, herritarren askatasunak bermatzeko, 1978ko Konstituzioaren 1. artikuluan aldarrikatutako zuzenbideko estatuaren giltzarria da.

Hori oinarri hartuta, izaera orokorreko tasen ezarpena aztertu behar dugu subjektuei dagokienez, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan. Partikularren arteko gatazketan Justizia Administrazioa –botere judizialaren erakunde moduan- gatazkek konpontzeko mekanismo nagusia da –baina ez bakarra-; administrazioaren esparruan,

eta jurisdikzioa ikuskatzaile moduan ezarrita, administrazio publikoen jarduna fiskalizatzeko modu bakarra da.

Tasen Legearen zioen azalpenean, jurisdikzio guztietan –zigor arlokoan izan ezik- berriz ezartzea justifikatzen ahalagindu dira, “desdoitzeak” saihesteko. Argudio moduan eman da auzitegietara jotzen duten herritarrek kostuaren atal bat haien gain hartzen badute jurisdikzio-ahalaren egikaritze arrazionalizatu egingo dela.

Legean askotan erabili den adierazpena da Justizia Administrazioaren kostuaren zati bat “onurarik gehien lortzen dutenek” ordaindu behar dutela. Justizia Administrazioaren egoera kontuan hartuta, gehiegizkoa eta errealtatetik urrundua dirudi esatea batzuek “onurak” lortzen dituztela gaur egungo botere judizialekin, are gehiago administrazioarekiko auzien esparruan. Esparru horretan, errekurso arrunt batek bi instantzien artean bost urteko epea erraz gaintzen du. Gainera, planteamendu hori oinarri hartuta, berdin-berdin esan daiteke “botere legegiletik onura gehien lortzen dutenak”, adibidez, eta arauen ekoizpen handiena eragiten duten kolektiboen kargura jar daitezke ganberen funtzionamenduaren kostuen atal bat. Horrek, argi eta garbi, ez du justifikaziorik.

Konstituzioaren 9. artikulua legekotasan printzipioa bermatu eta botere publikoen nahierakeria debekatzen du. 106. artikuluan, auzitegien esku uzten da erregelamenduak egiteko ahalaren kontrola eta administrazio jar-

IRAGARKI TAULA TABLÓN DE ANUNCIOS

Abokatuen bulego finkatuak, Bilboko Indautxuko plazan, bulegoa alokatzen du (barrukoa edo kanpokoa izan daiteke), gastu eta zerbitzu guztiak prezioan sartuta (idazkaria eta datu-basea barne hartuta). Telefona: 944103518, posta: aretxabaleta@telefonica.net

Jon Muñoz Iñurrateguik HELBIDE PROFESIONAL ALDATU DU. Aurrerantzean, helbide hau izango du: DIPUTAZIO kaleko 8a, atari nagusia, 4. departameta. 48008 BILBO. TFNOA 656790722 POSTA: jmunoz@euskalnet.net

Sergio García Rebollok, Soiartze García Alorrek eta Iraide Saratxo Mazorriagak HELBIDE PROFESIONAL ALDATU DUTE. Aurrerantzean, helbide hau izango dute: “Sagar Abogados”, Libertad etorbidea, 41. Tarteko solairua ezk.-ezk. 48901 Barakaldo. Tel. eta Faxe: 94.600.29.04.

ALOKATZEN DA bulego bat altzari guztiekin, Abokatuen Bulegoaren barruan, Bilbo erdialdean, eraikin esanguratsuan –epaitegietatik hurbil-. Intereza dutenek deitu telefono honetara: 944154570, edo mugikor honetara: 667500284.

dunaren legezketasuna, bai eta jardun hori zein helburuk justifikatu eta helburu horiekiko mendekotasuna ere. Hau da, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da administrazio-jarduna fiskalizatu ahal izateko bide bakarra eta, beraz, zuzenbideko estatuaren beharrezko osagaia.

Hori dela eta, atentzioa deitzen du gaur egungo Tasen Legean ez dagoela inolako salbuespenik administrazioarekiko auzien jurisdikzioari dagokionez, gutxienez botere publikoek emandako xedapen orokorren legezketasuna kontrolatzeari lotuta, antolamendu juridikotik zuzenbidearen aurkako arauak kentzeko bide bakar moduan. Era berean, ez da oso ondo ulertzen, adibidez, desjabetu batek tasa bat ordaindu behar izatea Administrazioaren baliopena auzitegiek berrikusi ahal izateko, lurralde-epaimahaien administrazio-izaera kontuan hartuta. Ez dira berriro azpimarratu behar, foro guztietan iragarrita baitaude, tasek sortzen dituzten ondorio ekonomiko batzuk administrazio sektorialek emandako zehapen-ebazpenak berrikusi behar direnean.

Eta, amaitzeko, administrazioarekiko auzien prozeduraren mekanika berezia kontuan hartuta, ez da ulertzen –dirua biltzeko ez bada– tasaren sorrera errekurtsioa jartzeko unean kontuan hartzea; hain zuzen ere, errekurtsioa epe luzaezinetan formulatu behar da, administrazio espedientea aztertu aurretik (5.2 artikulua), eta benetako zergapeko egitea itxuraz demanda formalizatzeari lotuta dago, Tasa Legearen 2 c) artikulua kontuan hartuta. Modu horretan, ez litzateke arraroa izango kasu batzuetan, administrazio espedientea aztertu ondoren, ordura arte jarritako edo iragarritako errekurtsioa jartzea bertan behera uztea, kasurik onenean eta “epaiketaz kanpoko konponbide” moduan, ordaindutako tasaren %60 itzultzea xede izanda.

2ª) Interes pribatu edo partikularrei dagokienez, ez dirudi oso egokia “justiziatik onurak lortzen dituztenei” buruz hitz egitea, legegariak buruan ez baditu herritar kereilajartzaileak, espezie patologiko moduan, osasun arloan hipokondriakoak diren bezala. Abokatutzak Justizia Ministerioari baieztatu ahal dio inor ez dela auzitegiatara apeta hutsez joaten. Erreklamazio batzuen oinarria sendoa edo ez hain sendoa izango da, asmoak batzuk edo beste batzuk izango dira, baina “jurisdikzio ahala egikaritzea arrazionalizatzea” –Legeak dioen bezala–, herritarren ordaintze gaitasunari lotuta ez dauden tributuak oinarri hartuta, prozesuaren hasieran eska daitezkeenak preklusio betekizun prozesal moduan, *prima facie* eragozpen bat da babes judizial eragingarrirako oinarritzeko eskubiderako. Horrez gain, estatistika guztien arabera, aseguru konpainiek eta finantza entitateek sustatzen dute desadostasunak judizializatzea.

Bestalde, tasa sortzea itxura batean **zerbitzua behar den moduan emateari** lotuta dago, kalitateari eta denborari dagokienez. Zer gertatuko da justizia administrazioaren zerbitzua modu akastunean ematen denean edo prozesuan zehar ebazpenak lege prozesalean ezarritako epeak bete gabe ematen badira? Tasaren zenbatekoa errekla-

matzeko eskubidea izango dugu zerbitzua garaiz kanpo edo atzerapenekin ematen delako?

Administrazioarekiko auzien esparruan ez bezala, egia esan gure antolamendu juridikoan gatazkak ebazteko beste modu batzuk ezarri dira, hala nola arbitrajea eta bitartekaritza –hori ez da posible Administrazio publikoaren legezketasun kontrolari dagokionez–, baina badirudi lege-lariak ez duela interes berezirik ez konfiantzarik alternatiba horiek sustatzeko. Ministroaren esanetan, Legea aldarrikatu baino urtebete lehenago, Espainian 9,5 miloi gai judizial egon ziren; Frantzia, herritar gehiago izan arren, 6,5 milioi egon ziren. Ministroaren ustez, auzien maila hori “benetan jasanezina” zen. Iritzi hori gorabehera, gure galdera hau da: Benetako borondatea dago Gobernuen aldetik partikularren arteko gatazkak ebazteko beste modu alternatibo batzuk sustatzeko? Gaur egungo Tasen Legea ikusita, badirudi ezetz. Ildo horretatik, BJKNk adierazi zuen “ezarri den tasen sistemak ez du inolako zerkusirik prozedura desberdinen barruan gatazkak judizioz kanpo ebazteko dauden mekanismoekin, hala nola adiskidetzea, transakzioa eta bitartekaritzarekin”. Bada, ziurrenik hau da unea **Abokatutzak bere trebakuntza eta gaitasuna erakusteko gatazkak epaiketaz kanpo ebazteari lotuta**. Horretarako, zerbitzu azkar, eraginkor eta merkea eskainiko du, Justizia Administrazioaren aurrean benetako alternatiba moduan ikusteko.

Prozesuz ibil eta merkataritzako kasuan, tasen bidezko sistemak ez luke autonomia edo independentea izan behar ausarkeriaren tradiziozko kontzeptutik. Modu horretan, pronuntziamentu judizialean nahitaez egon behar litzateke ohar bat esanez egiteko edo zuzenbideko zalantzak daudenez justifikatuta dagoela Justizia Administrazioak esku hartzea. Izan ere, horrela izanez gero, ez litzateke tasarik eskatu behar juridikoki istilutsua den auzi bat argitzeko auzitegiatara modu legitimoan doazen aldeei.

Epaiketaz kanpoko akordioak sustatu eta auzitegiak “arindu” nahi badira, tasa sortu behar litzateke prozedura judizial osoa garatzeagatik. Modu horretan, akuilu ekonomikoa izan daiteke. Horrela, probak ikusita, adibidez aditu bidezkoak, planteatu ahali zango litzateke prozedura bertan behera uztea edo akordioaren bat egitea, karrera judizialeko kide baten azterketa eta ebazpena beharrezko aizan gabe. Hau da, ez litzateke jurisdikzio ahala egikarituko, justizia “administrazioarena” soil-soilik (izapidetza).

3ª) 10/2012 Legearen zioen azalpenaren arabera, benetako babes judizialerako eskubidea ez da nahasi behar doako justiziarako eskubidearekin. Konstituzio Auzitegiak sistemaren konstituzionaltasuna berretsi du, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak ohartarazi zuenez, hori ez da guztiz zuzena, auzitegi horren pronuntziamentuak nahitaez jarri behar baitira egindako eztabaidaren testu-guruaren barruan.

Hain zuzen ere, BJKNk, 2012ko maiatzaren 31n emandako txostenean, ohartarazi zuen Arau Inpaktuaren Analiaren

Memorian eta zioen azalpenean aipatutako Konstituzio Auzitegiaren 20/2012 epaitik ezin dela ondorioztatu Tasen Lege berriaren konstituzionaltasunari buruzko aurretzako pronuntziamenturik. Izan ere, auzitegi horren epai guztiekin gertatzen den bezala, epaiaren irismena eta garrantzia mugatzeko, kontuan izan behar dira zein testuingururen barruan dagoen gai hori eta emandako epaiaren inguruabarrak. 20/2012 epaiaren kasuan, Konstituzio Auzitegiaren erabakia dela bide, **konstituzionaltasun-arazoa** planteatu zuen organo judizial batek. Azken horren ustez, 53/2002 Tasen Legearen 35.7 artikularen bigarren paragrafoan ezarritakoa aplikatuta justiziarako sarbidearen eskubidea urratu zitekeen, Konstituzioaren 24.1 artikuluko benetako babes judizialerako eskubidearen osagai moduan. Izan ere, arazoa sustatu zuenaren ustez, Ogasun Publikoaren esku beste neurri batzuk zeuden tasa ordaintzea lortzeko, eta horiek ez ziren hain drastikoak ezarritako preklusio ondorioak direla-eta prozesutik kanporatzearekin alderatuta.

Contabilidad para juristas, Gurrea Martínez, Aurelio Tirant lo blanch (Valencia)

Los órganos de gobierno de la sociedad familiar, Velayos Lluis, Cristina Aranzadi (Cizur Menor)

Comentario a la Ley de Defensa de la Competencia, Massaguer, José (dir.), Folguera, Jaime (dir.), Arribas, Alberto, (otros) Civitas (Cizur Menor)

La reintegración de la masa: IV Congreso español de Derecho de la Insolvencia, VII Congreso Mercantil y Concursal de Andalucía, Beltrán, Emilio (dir.), Sanjuan, Enrique (dir.), (otros) Civitas (Cizur Menor)

ZIGOR ZUZENBIDEA

Blanqueo de capitales y evasión fiscal, Malla-da Fernández, Covadonga Lex Nova (Valladolid)

La justicia restaurativa: desarrollo y aplicaciones, Tamarit Sumalla, Josep (coord.), (otros) Comares (Granada)

ZUZENBIDE PROZESALA

Memento práctico procesal penal 2013, Melón Muñoz, Alfonso (dir.) Francis Lefebvre (Madrid)

El juicio cambiario en la ley de enjuiciamiento civil, Garberi Llebregat, José Bosch (Barcelona)

Memento procesal civil 2013, Melón Muñoz, Alfonso (dir.), (otros) Francis Lefebvre (Madrid)

Derecho procesal civil: procesos declarativos y procesos de ejecución, Garberi Llobregat, José Bosch (Barcelona)

El control de la legalidad ante el tribunal de justicia de la Unión Europea: anulación, omisión y excepción de ilegalidad, Martín Brañas, Carlos Civitas (Cizur Menor)

Proceso civil: manual práctico de la Ley de Enjuiciamiento Civil (con formularios), Sospedra Navas, Francisco José (coord.), (otros) Civitas (Cizur Menor)

Esquemas procesales civiles, penales y concursales: adaptados a la Ley de Medidas de Agilización Procesal y a la reforma de la Ley Concursal, Carrillo Olano, Germán, (otros) La Ley (Madrid)

El proceso monitorio al alcance de todos: guía práctica, Martín Jiménez, Carlos Manuel Lex Nova (Valladolid)

La partición judicial de la herencia: un análisis de su régimen legal y su aplicación judicial, Sánchez Hernández, Carmen Tirant lo blanch (Valencia)

BESTEAK

Sociedad de la información contratos de conexión a Internet, "hosting" y búsqueda: servicios de Intermediación en Red con Consumidores, Yanguas Gómez, Roberto Civitas (Cizur Menor)



DERECHO FISCAL

> **Orden Foral 3211/2012, de 26 de diciembre**, por la que se determinan los supuestos en los que los sujetos pasivos del Impuesto sobre Actividades Económicas deben presentar una comunicación en relación con el volumen de operaciones y se aprueba el modelo de dicha comunicación. (BOB 8-1-13).

> **Orden Foral 3209/2012, de 26 de diciembre**, por la que se aprueban los índices y módulos del régimen especial simplificado del Impuesto sobre el Valor Añadido para el año 2013. (BOB 10-1-13).

> **Orden Foral 3212/2012, de 26 de diciembre**, por la que se aprueban los precios medios de venta aplicables en la gestión del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones e Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte. (BOB 11-1-13).

> **Orden Foral 3210/2012, de 26 de diciembre**, por la que se fijan los signos, índices y módulos para la aplicación del método de estimación objetiva del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas para el año 2013. (BOB 11-1-13).

> **Decreto Foral Normativo 1/2013, de 22 de enero**, por el que se modifica la Norma Foral 7/1994, de 9 de noviembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido. (BOB 28-1-13).

Se introduce, una modificación por la que se establece expresamente que constituye entrega de bienes la adjudicación de los inmuebles promovidos por comunidades de bienes a sus comuneros, en proporción a su participación.

Además, en el ámbito de la base imponible, se dispone que, en operaciones a plazos, bastará instar el cobro de uno de los plazos para modificar aquella; asimismo, se introducen modificaciones

técnicas con una finalidad aclaratoria en los supuestos de rectificación de facturas a destinatarios que no actúen como empresarios y profesionales, con el objetivo de que, en caso de pago posterior

total o parcial de la contraprestación por el destinatario, este no resulte deudor frente a la Hacienda por el importe de la

cuota del impuesto que se entienda incluida en el pago realizado.

Por último, en la Disposición Adicional se modifica el tratamiento fiscal del gravamen especial sobre bienes inmuebles de Entidades no residentes.

> **Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 4/2013, de 22 de enero**, por el que se aprueba el Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación. (BOB 29-1-13).

Se establece un sistema de facturación basado en dos tipos de facturas: la factura completa u ordinaria y la factura simplificada, que viene a sustituir a los denominados tiques; se impulsa decididamente la facturación electrónica y se establece una nueva definición de factura electrónica, como aquella factura que haya sido expedida y recibida en formato electrónico y garantizada mediante los controles de gestión usuales en la propia actividad empresarial o profesional.

Por último, el presente Reglamento modifica el plazo para la expedición de las facturas, cuando el destinatario sea empresario o profesional, que antes era de un mes desde el devengo de la operación y ahora deberán ser emitidas antes del día 16 del mes siguiente al periodo de liquidación del Impuesto sobre el Valor Añadido en el curso del cual se hubiere realizado la operación.

DERECHO LABORAL Y DE SEGURIDAD SOCIAL

> **Real Decreto-ley 1/2013, de 25 de enero**, por el que se proroga el programa de recualificación profesional de las personas que agoten su protección por desempleo y se adoptan otras medidas urgentes para el empleo y la protección social de las personas desempleadas. (BOE 26-1-13).

En primer lugar, se concede una nueva prórroga al programa de recualificación profesional de las personas que agotan su protección por desempleo, por período de seis meses, cuando la tasa de desempleo fuera superior al 20%.

En segundo lugar, se establece en 20 el número de jornadas reales cotizadas exigidas a los trabajadores eventuales agrarios de las Comunidades Autónomas de

Andalucía y Extremadura para poder ser beneficiarios del subsidio por desempleo o de la renta agraria antes indicados.

Por otro lado, seguirán teniendo derecho a la reposición de la prestación contributiva por desempleo aquellos a los que se les suspenda o reduzca la jornada hasta el 31 de diciembre de 2013, y cuyo despido se produzca hasta el 31 de diciembre de 2014. El vencimiento de las fechas previstas en el artículo 16 de la Ley 3/2012, de 6 de julio, requiere la inmediata e ineludible adopción de esta medida.

Por último, se mantiene de forma transitoria la posibilidad de efectuar contratos para la formación y el aprendizaje no vinculados a certificados de profesionalidad o títulos de formación profesional.

> **Resolución de 11 de enero de 2013**, del Instituto Nacional de Gestión Sanitaria, por la que se establece el procedimiento de reembolso del exceso de aportación farmacéutica a los usuarios que ostenten la condición de asegurados pensionistas así como por sus beneficiarios. (BOE 26-1-13).

> **Orden ESS/56/2013, de 28 de enero**, por la que se desarrollan las normas legales de cotización a la Seguridad Social, desempleo, protección por cese de actividad, Fondo de Garantía Salarial y formación profesional, contenidas en la Ley 17/2012, de 27 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2013. (BOE 29-1-13).

> **Orden ESS/66/2013, de 28 de enero**, por la que se actualizan las cantidades a tanto alzado de las indemnizaciones por lesiones, mutilaciones y deformidades de carácter definitivo y no invalidantes. (BOE 30-1-13).

Conforme con lo establecido en la disposición adicional quincuagésima sexta del texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social, con esta Orden se procede a actualizar los importes, según baremo, de las lesiones permanentes no invalidantes, derivadas de contingencias profesionales, reconocidas por la Seguridad Social. Dicha actualización implica un incremento del 19,7 por ciento, equivalente a la evolución del IPC desde diciembre de 2004 hasta diciembre de 2011.

ZERGA ZUZENBIDEA

> **211/2012 Foru Agindua, abenduaren 26koa**, honen bidez Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren subjektu pasiboek euren eragiketen bolumenari buruzko berriematea zein kasutan aurkeztu behar duten ezarri da eta horretarako eredu onetsi da (BAO 13-1-8).

> **3209/2012 Foru Agindua, abenduaren 26koa**, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezi erraztuko 2013. urteko zeinu, indize eta moduluak onetsi dituena (BAO 13-1-10).

> **3212/2012 Foru Agindua, abenduaren 26koa**. Honen bidez, batez besteko prezioak onartu dira, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, eta Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Berezia kudeatzean aplikatzeko (BAO 13-1-11).

> **3210/2012 Foru Agindua, abenduaren 26koa**, honen bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren metodoa 2013. urtean aplikatzeko zeinu, indize eta moduluak finkatu dira (BAO 13-1-11).

> **1/2013 Foru Dekretu Arauemailea, urtarrilaren 22koa**, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 1994ko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Araua aldatzen duena (BAO 13-1-28).

Berariaz ezartzen da ondasun-ematetzat joko dela ondasun-erkidegoek sustatutako higiezinak haien erkideei adjudikatzea, erkide bakoitzak duen partaidetza-zen heinean.

Gainera, zerga-oinarriari dagokionez, ezartzen da eperako eragiketetan nahikoa izango dela epe horietako baten ordainketa eskatzea zerga-oinarria aldatzeko. Zenbait aldagaitza ere egiten dira, gauzak argi gera daitezen enpresaburu edo profesional gisa jardutenez duten hartzailerei egindako fakturak zuzentzen diren kasuetan: lortu gura da hartzailere, geroago, kontraprestazio osoa edo haren zati bat ordaintzen bada, hartzailere hori ez dadila Ogasunaren zordun izan egindako ordainketan zergari dagokion kuotaren zenbatekoa dela eta.

Azkenik, xedapen gehigarrian aldatu egiten da erakunde ezegoiarren ondasun higiezinaren gaineko karga bereziaren tratamendu fiskala.

> **Bizkaiko Foru Aldundiaren 4/2013 Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, Fakturazio- betebeharreri buruzko Araudia** onesten duena (BAO 13-1-29).

Araudi berri honen bidez, faktura mota bitan oinarritutako fakturazio-sistema bat ezartzen da: faktura osoa edo arrunta eta faktura sinplifikatua, tiketak ordeztzen dituena. Gainera, fakturazio elektronikoa irmoki bultzatzen da, eta faktura elektronikoen definizio berri bat ezartzen da: formatu elektronikoa egin eta jaso den faktura, enpresa-jarduean edo jardun profesionalan bertan ohikoak diren kudeaketa-kontrolen bidez bermatzen dena.

Azkenik, araudi honek fakturak egiteko epea aldatzen du, hartzailere enpresaburu edo profesionala bada. Lehen, hilabeteko epea zegoen eragiketa sortzen zenetik; orain, berriz, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazio aldia —eragiketa egin denekoa— amaitu ondorengo hilaren 16a baino lehen egin beharko dira fakturak.

LAN ZUZENBIDEA ETA GIZARTE SEGURANTZA

> **1/2013 Errege dekretu-legea, urtarrilaren 25ekoa**, honen bidez, **birkualifikazio profesionalaren inguruko programa luzatzen da eta enplegurako eta langabetuen babeserako beste presako neurri batzuk ezartzen dira.** (BOE 13-1-26).

En primer lugar, se concede una nueva prórroga al programa de recualificación profesional de las personas que agotan su protección por desempleo, por periodo de seis meses, cuando la tasa de desempleo fuera superior al 20%.

En segundo lugar, se establece en 20 el número de jornadas reales cotizadas exigidas a los trabajadores eventuales agrarios de las Comunidades Autónomas de Andalucía y Extremadura para poder ser beneficiarios del subsidio por desempleo o de la renta agraria antes indicados.

Por otro lado, seguirán teniendo derecho a la reposición de la prestación contributiva por desempleo aquellos a los que se les suspenda o reduzca la jornada hasta el 31 de diciembre de 2013, y cuyo despido se produzca hasta el 31 de diciembre de 2014. El vencimiento de las fechas previstas en el artículo 16 de la Ley 3/2012, de 6 de julio, requiere la inmediata e ineludible adopción de esta medida.

Por último, se mantiene de forma transitoria la posibilidad de efectuar contratos para la formación y el aprendizaje no vinculados a certificados de profesionalidad o títulos de formación profesional.

> **2013ko urtarrilaren 13ko ebazpena**, Instituto Nacional de Gestión Sanitaria delakoarena; horren bidez, **gehiagizko farmazia ekarpena bueltatzeko prozedura ezartzen da** (BOE 13-1-26).

> **ESS/56/2013, agindua, urtarrilaren 28koa**, kotizatze arauak garatzen dituena, **Gizarte Segurantzari, langabeziari, jarduera uzteari, Soldatak bermatzeko funtsari eta lannbide heziketari dagokionez**, abenduaren 27ko 17/2012 Legean, hain zuzen, 2013ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoan, aurreikusitakoak (BOE 13-1-29).

> **ESS/66/2013 agindua, urtarrilaren 28koa**, zenbait **lesio, mutilazio eta deformazioengatik emandako kalte-ordainen eguneraketa** jasotzen duena (BOE 13-1-30).

Conforme con lo establecido en la disposición adicional quincuagésima sexta del texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social, con esta Orden se procede a actualizar los importes, según baremo, de las lesiones permanentes no invalidantes, derivadas de contingencias profesionales, reconocidas por la Seguridad Social. Dicha actualización implica un incremento del 19,7 por ciento, equivalente a la evolución del IPC desde diciembre de 2004 hasta diciembre de 2011.



UNA PUERTA QUE NUNCA ENCONTRÉ



Idazlea:
Thomas Wolfe

Itzulpena:
Juan Sebastián Cárdenas

Periférica
104 or.; 15,50€

“Una puerta que nunca encontré” 30eko hamarkadan Thomas Wolfe amerikar eleberrigileak (Asherville, 1900 – Baltimore, 1938) idatzitako kontakizun laburra da. Orain argialetxe apal baten –Periférica– lanari esker berrargitaratzen da. Mota horretako argialetxeak adi egoten dira hainbat inguruabar direla bide Espainian behar besteko zabalkundea izan ez duten altxor txikien aurrean. Aitortu behar dugu liburu honetara erleak polenera bezala hurbildu garea. Wolfereen aurreko lanak, “El niño perdido”, argialetxe horrek duela bi urte argitaratutako lanak, utzi zigun zapore onak erakarrit. Baliteke izenburua gogoratzea, literatura atal honetatik gogo biziz gomendatu genuen eta. Istorio dramatikoak kontatzen zuen. Estatu Batuen hegoaldeko familia baten etsipena espainiar gripeak jota semeetako bat hiltzen denean. Eleberria zoragarria zen edukiarri zein lirismoari dagokionez. Eta hori gutxi balitz, formari erreparatuz, maisutasunezko ikuspegia erabiltzen zuen. Wolfek gertaera bera lau angelutatik kontatzen zuen: haurraren ikuspegia, amarena eta neba-arrebena. Puzzle baten antzera, istorioa bertsio horietako bakoitzarekin osatu egiten zen, eta intentsitatea lortzen zuen.

Aurrekari horiek izanda, Wolfereen *nouvelle* berri hau kalean zegoela oharrean, berehala eskuratu genuen. Beste bitxi bat aurkitzeko itzaropenarekin hasi ginen lana irakurtzen. Eta sentipena nahasia da. Egia da ez gaituela hunkitu “El niño


perdido” lanak beste. Orrialdeotan ez dugu sentitu emozio indartsua, atsekabetik hurbil dagoena. Baina, eleberria amaitu ondoren, Wolfek funtsezko beste lan bat idatzi zuela pentsatzen dugu. Ez da horren konbentzionala, ez da horren akademikoa, baina garrantzitsua bai.

Nahasmena sentitu dugu “Una puerta que nunca encontré” –bide batez esan dezagun jatorrizko “No Door” izenburua gehiago gustatzen zaigulaz dela erraz irakurtzen den liburua. Egilearen apeta dirudi, lan pertsonala. Ehun orrialdeak oka egin balitu bezala. Bakarrizketaren antzeko zerbait. Hori bai, zatituta. Lau kapitulu lau bizi-esperezia kontatzeko. Bitartean, zazpi urte. 1923ko urritik 1931ra. Ez dago kronologia definiturik eta urteak txandakatu egiten dira. Argudio bat ere ez dago. Ez dago argudiorik ez delako ohiko istorio bat kontatzen. Baina batasuna badago. Atzean narrazioaile bakarti eta nahasia baitago beti. Gauzak gertatzen dira –aitaren galera, etxera itzultzea, deserrotzea-, baina literatura-kohesioa lan osoak duen malenkoniaren bidez lortzen da. Ahots ahuldu eta alderraiari lotutako malenkonia. Munduan etxe bat eta leku bat etsipenez oroitzen dituen ahotsa. Ahots sentikorra, hurkoak liluratuta daukana. Ahots delikatu eta bitxia. Lirikoa eta pausatua. Hersturaz berriro ere lehorrean ibiltzeko atearen bila dabilen ahotsa. Inoiz aurkitu ez zuen atea.

“Dichoso es aquel que mantiene una profesión que coincide con su afición”.

Bernard Shaw

LA LEY DE HERODES Y OTROS CUENTOS



Idazlea:
Jorge Ibarguengoitia

Editorial RBA
157 or.; 19,95€

1983ko azaroaren 27ko goizaldean, Madrilen, Avianca konpainiako Boeing 747 hegazkina, Paris-Bogotá ibilbidea egiten zuena, Barajasera hurbiltzen hasi zen, eskala egiteko. Ezagutzen ez diren arrazoiengatik, hegazkinak ibilbide okerra hartu zuen, eta gutxieneko segurtasun-altueratik behera egin zuen. Kutxa beltzean grabatutako elkarriketatik ondorioztatu daiteke pilotuak uste zuela 3.282 oineko altueran zegoela, baina benetan 2.382 oineko altueran zegoela. Maniobra egiteko aukerarik ez zuenez, pilotua Mejorada del Campo herri txikian lur hartzen ahalegindu zen, Barajasetik 12 kilometrora. Hegazkina orduko 258 kilometroko abiadura zuen, eta lurra hiru aldiz jo zuen. Hirugarrenean hegazkina hautsi eta su hartu zuen. 181 pertsona hil ziren.

Jorge Ibarguengoitia (Guanajote, 1928 – Madril, 1983) idazlea hegazkin horretan zegoen, eta egun horretan, Mexikoko literaturaren etorkizun handiko ahots bat desagertu zen. Zorionez, idazlearen lana ez dute ahaztu. Mexikoko kritikarien ustez, mendearen bigarren erdiko egilerik garrantzitsuenetakoa da. Baina morbosoa iruditu arren, galdera da ea noraino iritsiko zatekeen idazlea hegazkin hori hartu izan ez balu. Izan ere, Ibarguengoitiak idazle guztiak izan nahi dutena zeukan. Berezko ahotsa. Estilo bakarra, originala, eta ea okertzen naizen, berriz errepikatu ezin dena.

Ibarguengoitia diziplina anitzeko egilea izan zen. Kazetaritzako artikuluak, kontakizun laburrak,

antzezlanak, eleberriak edo haurrentzako ipuinak talentu bera erakutsiz egiten zituen. Lerrootan gomendatzen dugun liburuak egilearen hamaika kontakizun ditu. Hasierako lanak diren arren –1967an argitaratu ziren-, idazlearen estiloa oso ondo erakusten dute. Ironia ugari dago. Jenio bizi eta gibel asmoa. Baina beti samurtasun ukitu batekin. Istorio askok idazle ogibidean bidea irekitzeko dauden zailtasunei buruz hitz egiten dute. Bere burua sudurluze baten antzera irudikatzen du, ogerlekorik gabe, inspirazioaren eta aitoparen zain. Era berean, Mexikoren ikuspegi kaotikoa eskaintzen digu: burokrasia, gizarte-desberdintasunak, beste alde baterantz begiratzen duen eliza, lukurariak, aberatsak eta ustelak...

Baina kontakizunik onenek protagonistaren maitasun-istorioei buruz hitz egiten digute. Hemen Ibarguengoitia garrantz eta mingarria agertzen zaigu. Bere buruaz barre egiteko dohainarekin. Ezer ezkutatu gabe, emakumeak nola konkistatzen dituen eta inoiz iristen ez diren sexu-ordain-sariak buruan izanda zenbat aguantatzen duen kontatzen digu. Orain “pagafanta” deitzen duten hori. Ibarguengoitiak pentsatzen duen moduan idazten du. Hizkera arrunta, esaldi nahasiak, bigarren asmoak, erritmoa, eta nola ez, umore beltz asko. Emakume batek senarraz –alfer hutsa– aspertuta dagoela esateko hitz hauek erabiltzen ditu: “(...) goizeko hamabiak arte lo egiten du eta euliak aurpegiak gelditzen zaizkio”.



DJANGO DESENCADENADO Quentin Tarantino

Epel uzten ez duten zuzendariekin aurretik asmoa argi utzi behar da, irakurleak gaizki-ulerturik izan ez dezan: Tarantino su eta gar defendatzen dut.

Ur freskoaren oasia Hollywoodeko basamortuan. Inork baino hobeto eraman ditu genero askotako filmak bere esparrura. Aurkariak behin eta berriro gauza bera esaten dute, ideia guztiak nonbaitetik hartu dituela, B edo Z serieko



klasikoen kopia hutsak egiten dituela... baina inoiz ez dute esaten zinema haren barruan film handiak zein benetako asmakeriak zeudela.

Aurkariak ados egongo dira nolabaiteko meritu aitortu behar zaiola azpizinema asko ikusi, hortik mamirik onenak atera

eta aldian-aldian gaur egun galduta dagoen epikarekin genero-berrinterpretazioak oparitzen dizkigunari.

Tarantinok ez du film txarrik, eta ahulenen artean ere -tar-tean *Malditos Bastardos*-, minutu antologikoak berreskuratuta daitezke. *Reservoir Dogs* eta *Pulp Fiction* erdietsi ezinezko tontorrak dira, baina ezin dugu ahaztu indarra dutela lehenengoak izan zirelako, eta horrek pisua du beti. Tarantinok ibilbide akatsik gabea du, eta guztiok ez gaitu berdin harritzen sorpresa osagai iragankorra baita.

Tarantinoren osagai guztiak spaghetti western honen mesedetan, kotoi-zelaietan (hau ere originala da!). Irudimena gainezka, elkarrizketa zoroak, une batzuetan jatorria eramaten gaituztenak -Tarantino bere buruaren parodia egiten hasi da-

Baina xehetasun berriak ikusten dira. Quentin serio jarri da. Tonu hutsal, ergelaren azpian, errealitate zail batekin ausartzen da, esklabotasunarekin (oraindik ere polemikoa da, hala nola Djangoren "merchandising" panpinak eta beste batzuk eBaytik kendu dituzte oraintsu). Denborak esango du film hau esklabotasunaren aurkako alegato hobea izan zen hainbat Oscar sari irabazi zituen *El color púrpura* filma baino.

Zuzendariak saltsa mehe egiten du. Ondo islatzen da esklabotasunaren fenomenoak, neurri batean, arrazari "traizio" egin zioten batzuei esker irau zuela. Izan ere, batzuek nahiago zuten jaunaren etxean enplegu ona izatea, eta horren truke, berdin zitzairen gainerako zerbitzariak eskuak lotuta izatea... beti egon dira klaseak, eta esklaboak eta "esklaboak".

Neurritz gaineko unibertsoa ez da falta, komikiko indarkeria, pulp kulturaren tarteak, etxeko marka duten elkarrizketak (egunean-egunean gehiago sinesten dut Tarantinok noiz edo noiz *Amanece que no es poco* lana ikusi duela), zazpigarren arteko gorpuak berpiztea (orain Don Johnsonen txanda da). Filma hain ona denez, badirudi Di Caprio aktore biguntxo oso gogorra dela.

LA CENA DE LOS ACUSADOS W.S. Van Dyke, 1934

Arinkeria batekin hasiko naiz, aipatutako filmaren tonuarekin bat dator eta. Bete-bete sinesten dut ez genuela gauza handirik galduko zinema 40ko hamarkadan amaitu izan balitz. Modu horretan, film honen modukoak behin barik hamalau aldiz ikusiko genituzke.



Van Dykek Dashiell Hammetten eleberri beltz bat (*The thin man*) zinemara eraman du, komedia garrantzaren tonuarekin (adjektibo sendoagorik ez badago). Bere buruari ez dio inolako mugarik

ezartzen, baina, hori bai, gona guztiak orkatilaren parean geratzen dira (Hays Kodea indarrean baitzegoen). Guztiak balio du, pertsonaia guztiak filmean noragabeen dabilta, detektibeen bikote protagonistarengandik hasita. Etorkinak, bizizaleak, ogibiderik gabeko jendilajea... denetarik ikusiko dugu.

Guztiz desegokia. Generoari erreparatuz, komedia zoroarekin lotuta dago, baina ukitu suntsitzailea duenez, haur tankerakoak izan daitezkeen beste batzuetatik oso urrun kokatzen da.

Oroitzapen historikoa egin behar da; mota honetako mai-


sulanak ikusita, pena sentitzen dugu, Amerikako komedia ergelkeria osorantz galgarik gabe doalako. Detektibe alkoholiko, zuhur eta azkar honen (William Powell) eta bere emazte lirain eta iragarlearen (Mirna Loy) sagak beste sei film eman zituen (guztiak ez ziren maila honetakoak izan). Bloke osoa eskuratzea erraza da, merkatuan duela zazpi urtetik "bildumazaleen sorta" horietako bat eskuratu daiteke eta.

Elkarrizketak guztiz irrigarriak dira. Mota honetako film batean bakarrik, etxe bakoitzetik onena biltzen duten jai ikaragarri batean, esan ahal dizute: "Nick, maite zaitut, jende zoragarria ezagutzen duzulako".

"Babestuen" komedia, lanik ez egitea leporatzen zaienean benetan haserretzen diren emakume dirudunen gigoloak...

Gagen segida bat azpimarratzen denean eta xehetasun edo elkarrizketa guztiak goitik behera zaintzen direnean gertatzen den bezala, inguruabar horiek guztiak batzuetan kalte egiten diote bilbeari. Baina ez du garrantzirik. "El sueño eterno", totem bat aipatzearen, ez da ulertzeko erraza liburua irakurtzen ez baduzu. Beldur naiz ez ote den beste horrenbeste gertatzen film honen amaierarekin. Badirudi presaz amaitu behar zela, alkohola eta gagak amaituta baitzeuden. Inor ez da perfektua.

Azken gorespena Maureen O Sullivan. Tarzanen neskalguna interpretatzean zuen arropa baino gehiago jantzita, baina liluragarri.



SEÑOR MOSTAZA – Delitos y faltas



Cd
(Hall of Fame)
10 abesti

Beti pentsatu dut valentziarrak *underground* munduaren barruko talderik *mainstreamena* – esangurarik onenean– dela. Ertzik gabeko popa, guztiz ortodoxoa egiten dute, eta konposatzean merkataritza-arrakasta izateko potentziala zuen materiala eskaintzen jakin zuten izen handi guztiak dituzte gogoan, irizpidean zuzentasuna galdu gabe. Pieza onak, landuak, baina adeitsuak beti, irrati-etxeen programazioan entzuteko modukoak direnak. Baina, orain, taldeari gutxieneko jarraipena ere ez diote bermatzen.

Orain, ohituta gauden erritmo motel horrekin, laugarren lana argitaratu berri dute. Factotum nagusiak, Luis Pradok, munduaren ikuspegi berezia erakusten ditu, ohiko kostunbrismoan estalita dauden gogoetak, nahiko originalak, eta ez oso konbentzionalak.

Mostaza taldearen musika erraz azaltzen da, erroak pop tradizio aitortuenean kokatzen baitira. Baina ez jakitunen popean, poparen *herri* definizioan baino, gutxienez belaunaldi pare baten

bitzitan sakon errotuta dauden abestien ukituak dituen horretan. Gero, hori bai, laukotea abestiei aberastasun instrumentala ematen ahalegintzen da, kide guztiengandik bereiziz: funtsean, tresna nagusitzat gitarra barik pianoa duen taldeak, gutxienez, atentzioa ematen du.

Hala ere, eta aurreko diskoetan gertatzen zen moduan –hau laugarrena da-, letrak oso erakar-garriak dira, zalantzarik gabe. Luis Pradok eta ohiko mamuek jokoa ematen dute komedia honetan, eta rola banatuta daude: harreman pertsonalak eta bikote-harremanak, inkomunikazioa, segurtasunik eza (“sólo veo los contras / nunca los pros”, “Se me da tan bien / lo de la postergación”), beldurrak eta, itxuraz gai nagusi moduan, etengabeko nerabetasunean ezkutatutako balizko heldutasuna. Atsegina berriro ere. Señor Mostaza taldearen diskoen zain egoten gara beti, ziur baikaude merezi izango dutela. Ondo ateratzen dira hemen egindako pop gehienarekin alderatuz gero, eta azken finean, ezinbestekoen atalean ar-txibatu behar dira.

LOS MARAÑONES – Historias sin principio ni final



Cd
(Perdición)
13 abesti

Los Marañones talde argi eta mozorrorik gabea dira, benetako banda, engainatu nahi ez duten –eta ezin duten– horietako bat. Seguru asko, murtziarrek ez dute aurkezpen gehiegirik behar. Baina ziur nago ez dutela ezer erakutsi behar. Bizitza osoa, ia hogeita bost urte, dar-mate rock oneko diskoak eskaintzen, orbanik gabeko bildumak. Hala ere, lan horiek –zoritzar-rez– ez dute izan entzuleen aitorten nahikoa eta komunikabideetan ez dira behar den beste agertu.

Historias sin principio ni final ibilbideko ha-maikagarren albuma da. Disko berri hau eguneroko bizipenetan oinarrituta dago, zailtasunik gabeko piezak dira, baina ez dute profil txikia. Alderantziz. Musikaren arloan leialak dira haien estiloarekiko. Rock klasikoa abiapuntu hartuta, beste gauza batzuetako xehetasunak gehitzeko gai dira (oraingoan skaren ukitu txiki bat ere badago...). Umerez eta maitasunez nahasten jarraitzen dute, eta abestiak mezu garrantzitsuak zabaltzeko erreminta onak direla pentsatzen jarraitzen dute. Apur bat inuzentea, baliteke,

baina paradoxa dirudien arren, gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa da.

Bizitza osoko rocka, apur bat eutsia lan honetan, azkenaldian egindako lanen ildotik. Horrela, lan oso eklektikoa atera zaie. Ez dute guztiz ahaztu noizean behin gehitzen duten ukitu li-sergikoa (ikus “Volando al fin”), azkenean haien ikur bihurtu dena. Doinu errazak eta itsaskorrak erabiltzen dira garrantzi handiko mezuak ezkutatzeko, hala nola “La hora de la revolución” teman. Blues-rocka, Dylanen folk elektriko apur bat, betiko musikak, beti izan behar zutena eta inoiz lortu ez zutena bihurtuta: eguneroko soinu-banda ona.

Ez da ezer gertatuko berriro ere. Eta pena izango da, baina ohitu gara ibilbide luzeko artistak azkenean anekdota huts bihurtzea itxuraz bertizaillearen eta –ziurrenik- iragankorraren aldeko apustuak egiten dituen industriaren barruan. Industriak ez die artista horien ondareei baliorik ematen, ezta adinarekin fruiturik onenak eskaintzen dituztenei ere. Kasu honetan bezala.



LES VÉPRES SICILIENNES



2012-2013 denboraldiko bosgarren izenburu moduan, eta "Tutto Verdi" proiektu saritua- ren ekitaldi honetan antzeztu beharreko hiru lanetatik azkena, OLBEk Busseto maisuaren lehen lan "frantsesa" taularatu du historian lehen aldiz. Konposizio honek agerpen urri adu munduko antzokietan eta diskografia murriztua du. Parisgo Opera Handian estreinatuta zuten 1855eko ekainaren 13an eta arrakasta handia lortu zuen, argudioan harrotasun frantsesa zauritu zitekeen arren. Garai hartan Bel Cantoren munduko epizentroa zen Parisgo Operako konpositore parmatarrari enkargua egin zioten estreinaldiaren urte berean Frantziako hiriburuan egingo zen Erakusketa Unibertsala zela eta. Opera frantses "handiak" masen eszena ikusgarriak eskatzen zituen, jai-ekitaldi distiratsuak, frantsesez abestua izatea eta hirugarren ekitaldian nahitaez ballet bat izatea, "grand spectacle".



Bost ekitaldiko mosaiko handia da, eta III. ekitaldian balleterako tarte oso luzea du. Don Carlos operarekin batera, Italiako konpositore bikainaren bi opera luzeenetako bat da. Libretoa Charles Duveyrier eta Eugene Scribe-rena da. Sizilian 1282an izandako gertaera historiko bat kontatzen da, hots, Siziliako herria frantziarren menderatzearen aurka altxatzea XIII. mendean. Gaiak ukitu epiko- aberkoia du, eta ukitu erro-

mantikoko gai batekin lotuta dago.

Ekoizpena ABAO-OLBE, Teatro Regio di Torino eta Teatro Nacional de Sao Carlos de Lisboaena izan zen, Davide Livermoreren eszena-zuzendaritzarekin. Ekoizpena ikusgarria, dotorea eta ondo argizatua izan zen. Ekintza 1992an kokatuta dago, Italian, eta XX. mendearen amaierako eta XXI. mendearen hasierako Italiaren erradiografia kritiko egokia egin zuen. Agertokian Alpeez bestaldeko gizaratearen gaitz handiak ikusi ahal izan ziren, Turingo eszena-zuzendariarentzat hauek baitziren: politikariak, mafia, telebista-kultura, faxismoa eta balio erkideak galtzea. Kasu honetan, zapaltzaileak ez dira frantsesak, libretoan esaten zen moduan, kasta politikoa eta diktadura mediatikoa baino. Siziliako zapal-

duak askatasuna eta demokrazia maite dituzten herritarrak dira. Bigarren ekitaldia nabarmendu behar da: "Capaci tragedia" izenekoa kontatzen da, Giovanni Falcone epailea hil zuen atentatu terroristak. Horretarako, mafiak autobide zati bat leherrarazi zuen.

Eszenaratzeari jarri ahal zaion eragozpen bakarra da operaren bertsio frantses hau hirugarren ekitaldiko balletarekin egin behar dela. Eta ez dela jo behar balletik gabe musikak irauten duen ordu erdian proiektio batzuk erakustera gure inguruko egoera politiko-sozialari buruz, inolako koreografiarik gabe. Horrek, nola ez, ikusleen artean txistu ugari eragin zituen.

Zulogunean, John Mauceri zuzendari estatu-batuarraren batuta esperimatuak Euskadiko Orkestra Sinfonikoa modu egokian zuzendu zuen, partitura "doitzeko" lan finean, batez ere doinuaren bitzasunari eta indarrari dagokienez. Konposizioak Verdiren ukitua izatea lortu zuten, eta doinuak bakarlariei laguntzeko eginkizun zaila oso ondo bete zuten.

Ahotsak aukeratzea ez zen eginkizun erraza izan OLBERentzat (Tamara Wilson soprano iparramerikarrak ezezkua eman ondoren). Baina ondo aukeratu zuten, eta azken urteetan Bilbon entzun ahal izan ditugun hiru ahots aipagarrienez gozatzeko aukera izan genuen.

Lianna Haroutounia OLBE n debuta egin zuen Armeniako soprano gaztea "Helene" handia izan zen. Eszena- zein musika-interpretazioak gora egin zuten lanak aurrera egin ahala. Bikain aritu zen, eta ahots indartsua eta oso altu ona dituela erakutsi zuen. Bereziki azpimarratzekoa izan zen "Boleroaren" interpretazioa, partiturak eskatutako tesitura zabala ondo baino hobeto bete baitzuen.

Gregory Kunde tenor liriko iparramerikarraren "Henri" pertsoniak erakutsi zigun azken





bi urteetan zergatik agertzen den bera lan honen antzeppen gehienetan. Nire ustez, ikusitakoa ikusita, bere rolaren tesitura zorrotza betetzeko gai den tenor bakarrenetakoa da. Egitekoak arrakasta izan zuen eszenan zein musikaren arloan, eta kantu-edertasuna erakutsi zuen erraztasun handiz igortzen duelako ahotsa. Gainera, erregistrorik garaienera segurtasun handiz iristen da. Hori guztia fraseatze errazeko ahots-teknika araztuari gehituta, parte hartze guztietan altuera oso handia erakutsi zuen.

Dimitry Ulyanov errusiarrek baxu bikaina dela erakutsi zuen. Debuta izan arren, ahotsak behin ere ez zion dar-dar egin, eta "Procida" interpretatzean egiteko handia erakutsi zuen. Ahots iluna eta intentsitate handikoa du, eta horri esker, partiturako piezarik bikainena ederto gauzatu zuen, hots, "O tu Palermo, terra adórala". Bertan, aberiarekiko mina adierazi zuen.


Aurrekoak baino apur bat beherago kokatu behar dugu Vladimir Stoyanov Bulgariako baritono-erdi tenorra. Interpretazioan Verdiren ukitua eta kalitatea erakutsi bazituen ere, ez zen egon aurreko hirukotearen maila berean. Operako pertsonaia guztien artean rolik interesgarriena eta konplexuena zuenaren eszena-interpretazioak irabazi egin zuen lanak aurrera egin ahala, baina ez zuen lortu pertsonaiak behar duen zorrotzasun eta gordintasun guztia erakustea. Musikaren arloan, aldiz, ahots-hedadura egokia duela erakutsi zuen, ez potentzia gehiegirekin. Gustu bikaina erakutsi zuen parte-hartze guztietan.

Era berean, aipagarriak izan ziren gainerako parte-hartzaileen jardunak, hala nola Bilboko Operaren Abesbatza (sasoi betean beti), Dario Russo errusiar baxua "Le Sire de Béthune" interpretatuz, Galiziako Nuria Lorenzo mezzosopranoa "Ninetta" interpretatuz, Bilboko Fernando Latorre baxua "Vaudemont" interpretatuz, Santanderreko Manuel de Diego tenorra "Thibault" interpretatuz, eta Kataluniako Vincenc Esteve tenorra "Danieli" interpretatuz.

Laburbilduz, aurkitzea merezi izan duen opera baten estreinaldi biribila.

"Les Vêpres Siciliennes"

Aktoreen zerrenda: Liana Haroutounian (s); Gregory Kunde (t); Dimitry Ulyanov (bx); Vladimir Stoyanov b(); Dario Russo (bx); Nuria Lorenzo (mzz); Fernando Latorre (bx-b); Bilboko Operaren Abesbatza; Euskadiko Orkestra Sinfonikoa; Eszena-zuzendaritza: Davide Livermore; Musika-zuzendaritza: John Mauceri; Lekua, Euskalduna Jauregia.



Aldizkariko Kultur Eranskinak espazio ireki eta anizkuna izan nahi du. Edozein kritika, iradokizun eta ekarpen eskertuko da: kultura@icasv-bilbao.com

El Suplemento Cultural de *El Boletín* pretende ser un espacio abierto y plural. Cualquier crítica, sugerencia y aportación es bienvenida: kultura@icasv-bilbao.com

**Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua**



**Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya**

Tú que puedes

Aprovéchate de la Mutualidad de la Abogacía



M^a del Prado Guzmán López
Mutualista desde 2002

Ignacio Peña Robledo
Mutualista desde 1997

Marta Isabel Uriarte
Mutualista desde 1987

José Manuel Cuerva
Mutualista desde 2008

Tú que puedes, benefíciate de todas las ventajas de ser mutualista:

Sin ánimo de lucro	Todos los beneficios para el mutualista¹
Gestión independiente de las inversiones	Persiguiendo siempre la máxima seguridad
Rentabilidad para tus ahorros	4,5% en 2012 + complemento a final de año²
Tus seguros de vida a menor coste	Gracias a nuestra especialización
Ventajas en servicios bancarios, seguros y otros	Con nuestro Club Privilegia
Disfruta de productos exclusivos para los abogados	De previsión complementaria y seguros personales
Gestión profesional	Compatible con la autogestión por los abogados
Costes reducidos	Estructura simple y distribución directa
Tecnología	Web interactiva para cualquier trámite o consulta
Transparencia	Información trimestral, y diaria en la web

Para más información entra en
www.mutualidadabogacia.com

escribe un e-mail a
buzon@mutualidadabogacia.com

o llama al Servicio de Atención al Mutualista
902 25 50 50

1. Los resultados de la Mutualidad reierten directamente en los propios mutualistas excepto el excedente que se debe destinar a reforzar la solvencia de la entidad.
Rentabilidad a cuenta, a la que se adiciona el complemento para alcanzar la rentabilidad total del 2012. La rentabilidad histórica del Plan Universal para los mutualistas ha sido del 5,50% anual promedio desde su creación. Rentabilidades pasadas no garantizan rentabilidades futuras.